ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2019IPLE0011**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2019-12-26ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2019ko abenduaren 26an, arratsaldeko 19:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ez-ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Unai Dorronsoro Olarra
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aingeru Galarraga Barandiaran
- Aitziber Orbegozo Arrospide

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. BIZKOR GURASO ELKARTEAREN DIRULAGUNTZA ESKAERA
4. 2020. URTEKO AURREKONTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA
5. 2020. URTEKO ORDENANTZA FISKALEN BEHIN BETIKO ONARPENA
6. MAREA GAINEKO BIDEA
7. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2019-11-26ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2019ko 110 eta 119 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. BIZKOR GURASO ELKARTEAREN DIRULAGUNTZA ESKAERA

Bizkor Guraso Elkarteak urte amaieran egiten duten ibilaldiko autobusa ordaintzeko dirulaguntza eskaera egin du, eta Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Bizkor Guraso Elkarteari 500 €-ko dirulaguntza ematea urte amaieran egiten duten ibilaldiko autobusa ordaintzeko.

Bigarrena.- Bizkor Guraso Elkarteari erabakiaren berri ematea.

4. 2020. URTEKO AURREKONTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2020ko aurrekontua, RPTa eta Plantila behin betiko izaerarekin onartzea.

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	190.935,00
2	Gastuak ond. arrunt eta zerb	147.150,00
3	Interesak	1.000,00
4	Transferentzi arruntak	61.450,00
6	Inbertsioak	47.060,00
9	Pasibo finantzarioak	13.000,00
Guztira		460.595,00

SARRERAK

Kapitulua	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	80.700,00
2	Zeharkako zergark	20.000,00
3	Tasa eta bestelako sarrerak	51.850,00

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

4	Transferentzia arruntak	306.795,00
5	Ondasun sarrerak	1.250,00
Guztira		460.595,00

2020 URTEKO PLANTILA ORGANIKOA

A) FUNTZIONARI PERTSONALA

Lanpostua	*Lanp. kop.*	*Taldea*	*Egoera*
1. IZAERA NAZIONALEKO GAIKUNTZA DUTEN FUNTZIONARIEK			
Idazkaritza-kontuhartzailaritza Azpieskala			
Idazkari-kontuhartzailea	1	A1	H*
2. ADMINISTRARITZA OROKORREKO ESKALA			
Administraritza Azpieskalan			
Administraria	1	C1	J

B) PERTSONAL LABORALA

Lanpostua	*Lanp. kop.*	*Taldea*	*Egoera*
ADMINISTRARITZA BEREZIKO ESKALA			
Menpeko Azpieskalan.Klasea:Ofiziozko pertsonala			
Pioi	1	C2	J
Garbitzailea	1	---	J**
	Guztira	Jabetzan	Hutsik
Guztira plantilan	4	3	1

H: Hutsik; * (%50eko lanaldia). ** (%71eko lanaldia).

LANPOSTUEN ZERRENDA 2020

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDETAKO **LANPOSTUAK**

Postua	*Lanaldia*	*Formakuntza*	*Hizk. Prof..*	*Prezep. data.*	*Taldea*	*Destino. / Osagaro*	*Berariazko osagarria*	*Carac. puesto lab. fun.*	*Bete..*	*Hutsak.*	*Eszed.*	*Betetze era*

Postua	*Lanaldia*	*Formakuntza*	*Hizk. Prof..*	*Prezep. data.*	*Taldea*	*Destino. / Osagaro*	*Berariazko osagarria*	*Carac. puesto lab. fun.*	*Bete..*	*Hutsak.*	*Eszed.*	*Betetze era*
Idazkari Kontu-hartzailea	50%	Zuzenbide lizentziatua, edo Política zientzietan, edo administrazio eta enpresa zuzendaritza, edo soziolagia; edo economía edo Finantza eta zientzia aktuarialetan.	4	92.06.30	A1	26	12.231,10*	I.N.(F)	0	1	0	Lehiaketa
Administrari-Dinamizatzailea	100%	Batxilergoa, Fp Ii edo baliokidea	3	11.06.01	C1	20	17.716,44	F	1	0	0	Lehiaketa

*Berariazko osagarrian barneratua dago udal ezberdinen idazkari kontu-hartzailetza partekatzen den kasuetarako arauek ezartzen duten osagarri berezia, kasu honetan **Albiztur** eta Beizamakoak.

LAN HITZARMENA DUTEN LANGILEEI GORDETAKO **LANPOSTUAK**

Izena	*Hornitzeko era*	*Taldea*	*Eskatutakotitulazio*	*Hizkuntza eskakizuna*	*Derrigorrez. data*	*Ordainketa maila*	*Lansaioa*
Peoia	Lehiaketa	C2	FP I edo baliokidea B1 Karneta	1	2002-10-06	11	%100
Garbitzailea	Lehiaketa	___	Eskolaritate zertifikatua edo baliokidea. B1 Karneta	1	2000-10-05	8	%71

Bigarrena.- GAOn argitaratzea.

5. <u>2020KO ORDENANTZA FISKALEN BEHIN BETIKO ONARPENA</u>

Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Behin betiko izaerarekin onartzea 2020ko ordenantza fiskalak honako edukiarekin:

2020 urteko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo zergari buruzko Ordenantza fiskalen eranskin hau aldatu da:

1.1 Eraikuntza eta Obra Zerga:

Tipoa: 4%.

1.2 Ondasun Higiezinen gaineko Zerga.

- Hiritarra (orokorra): Tipoa 0,1616.

- Industriarako: 0,4.

- Landalurra: 0,84.

1.3 Hirilurraren balioaren gehikuntzaren gaineko zega.

- 5 urte arteko aldia	%3
- 10 urte artekoa	%2,80
- 15 urte artekoa	%2,70
- 20 urte artekoa	%2,70
Tipoa:	%7,50

1.4 Aktibitate ekonomikoen gaineko zerga.

Tipo: 1,34

1.5 Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren kuotak finkatzeko elementuak arautzen dituen Ordenantza.

Turismoak:

9 zaldi fiskaletik behera	26,34
9tik 11,99ra	54,03
12tik 13,99ra	87,86
14tik 15,99ra	123,00
16tik 19,99ra	158,15
20tik gora	193,30

Autobusak:

21 eserleku	121,79
21etik 50era	173,43

50 baino gehiago	216,81

Kamioiak:

1.000kg-tik behera	61,80
10.00kg-tik 2.999kg-ra	121,79
3.000gk-tik 9.999kg-ra	173,43
10.000kg-tik gora	216,81

Traktoreak:

16 zaldi fiskaleraino	25,33
16tik 24,66ra	39,79
25etik gora	119,39

Ibilgailuen atoiak:

75 kg-tik 1000 kg-arte	25,83
1000 kg-tik 2999 kg-arte	40,58
3000 kg-tik gora	121,79

Bestelako ibilgailuak:

Ziklomotoreak	6,44
125 cc arteko motozikletak	6,44
125etik 250cc arteko motozikletak	11,04
250etik 500cc arteko motozikletak	22,14
500etik 1000cc arteko motozikletak	44,27
1000cctik gorako motozikletak	88,56

30 urte baino gehiagoko ibilgailuek % 70 eko hobaria.

2. 2020 urteko urtarrilaren 1etik aurrera Jardueren eta zerbitzu prestazioen gaineko tasen eranskin hauek aldatu dira:

2.1 Ura:

— 30 m³ bitarte: 21,26 euro.

— 30 m³ aurrea: 0,70 euro m³ bakoitzeko etxebizitzentzat, eta 0,82 euro m³ bakoitzeko industriarentzat.

— Ur hartze berria: 37,20.

— Saneamentua Santa Marina: 0,23 m³ bakoitzeako.

— Kontadorearen hornikuntza gastua ordaindu behar da.

— Partzela pribatuan ezartzen diren ureztatze aho eta kontagailuak eskatzailearen kontura izango dira.

2.2 Zabor bilketaren tasa.

Ohiko bilketa zerbitzua Hiriguneko etxebizitzak eta Baserriak: 66,85 €/urteko.

Ohiko bilketa zerbitzua Jatetxeak: 213,05 €/urteko.

Ohiko bilketa Enpresak: 213,05 €/urteko. Zerbitzu industrialaren ordainketa udalak zerbitzua eskaintzen duen guneetan bakarrik bututuko da.

Organikoaren jasotze zerbitzua: 31,22 euro urteko.

Zabor organikoko kubo gehigarri bakoitzeko 73,19 euroko tasa gehiarri bat ezartzen da, Industriari eta Tabernei dagokienean.

2.3 Frontoia:

Erreserbak: 1 euro.

Argia: 4 euro orduko.

2.4 Udalekuak:

- 75 euro familiatik kide bat joanez gero.

- 70 euro familiatik bi kide behintzat joanez gero.

- Udaleku itxiak: 102 euro asteko.

2.5 Eskolaz kanpoko iharduerak

- Ingeles ikastaroak: 25 euro hileko.

- Pelota ikastaroa: 70 euro ikasturteko

- Dantza ikastaroa: 10,35 euro hileko.

2.6. Helduentzak ikastaroak

- Ariketa fisiko ikastaroak: 15,53 euro hileko.

2.7 Hirigintza baimenak.

- Kontsulta urbanistikoak obra txikiak: 51,77 €.

- Kontsulta urbanistikoak obra handiak edo lehen erabilerak: 155,30 €.

2.8 Hilerria:

- Zuloa egin eta tapatzea: 174,29 €.

- Nitxoan sartzea: 75,01 €.

- Exhumazio eta sepulturero lanak orduko: 25,88 €.

- Nitxo erabilera 15 urte: 251,37 €.

- Lur erabilera 15 urte: 124,24 €.

- Kolunbario erabilera 25 urte: 125,69 €.

2.9 Fotokopia:

A4 txuri beltz bakoitzeko 10etik aurrera eguneko 0,10 €.

A4 koloretan, orri bakoitzeko 0,20 €.

Eskaneoa orriko: 0,10 €.

2.10 Bide erabilera tasa:

Fidantzaren kopuruaren % 20.

2.11 Frontoi azpiko dutxen erabilera tasa:

Pertsona bakoitzeko 3 euro.

Bigarrena.- GAOn argitaratzea bere osotasunean.

6. MAREA GAINEKO BIDEA

Marea Gaineko bidea egoera txarrean dago eta konponketa baten beharra du.

Iberdrolako antenara joateko bidea da, eta duela urte batzuk lortutako akordioari esker, orain arte Iberdrola zen bidearen konponketa gastuez arduratzen zena. Baina Iberdrolak akordioa hautsi nahi du, eta azken konponketa bat ordaintzeko prest dago.

Inguruko lur jabeak (tartean Albizturko Udala) ez daude ados Iberdrolaren asmoekin, eta azken aldian bilerak egin dituzte gai hau aztertzeko.

Egoera aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Albizturko Udalak lur jabe soil moduan jardungo du gatazka hontan beste lur jabeekin elkarlanean.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldundiari bidearen izaeraz eta balizko konponketak finantzatzeko dirulaguntzak lortzeko aukeraz galdetuko dio.

7. GALDERA ERREGUAK

- Herri Batzarra: Abenduak 14ean egindako Herri Batzarraren balorazio positiboa egin da. Jende askok parte hartu zuen, eta proposatu ziren gaietan herritarren adostasuna jaso zen. Aurkezpena power point bidez oso txukun atera zen eta komeni da noizean behin honelako gehiago egitea.

Osoko bilkura, 20:35tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2020ko urtarrilaren 2an

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 13:43:01 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.26 09:22:04 +02'00'